



**HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN  
2022KO ABENDUAREN 12KO EBAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN ETA  
HEZKUNTZAKO IKUSKATZAILEEN ZERBITZUAN DAUDEN  
IKUSKATZAILEEN KIDEGOETAKO KARRERAKO FUNTZIONARIOEN  
ARTEKO ESTATU MAILAKO 2022/2023KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN  
ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA  
ARGITARA EMATEN DUENA**

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak hamalagarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2022ko urriaren 14a),

**EBATZI DUT:**

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako 2022/2023ko lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren II eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Erreklamazioak egiteko epe bat, 2022ko abenduaren 14tik 27ra, biak barne, irekitzea.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 12a